

## **SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN OHIKO SAIOA**

**2018ko URTARRILAREN 30a**

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea  
Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea  
Estefania Rivera Colmenares and., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.  
Lorea Artetxe de la Fuente and., Bildu Udal Taldea  
Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea.

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

### **1. 2017ko AZAROAREN 28ko BILERAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Gai honi dagokion idazpuruan adierazitako akta alde zuzenetik helarazi denez, ez da une horretan irakurri.

Artezkaritza Kontseiluak akta onartu egin du. Bildu eta Euskal Sozialistak Udal Taldeek abstentzioa agertu dute.

### **2. 2017ko EKITALDIKO AURREKONTUEN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.**

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundeak 2017ko ekitaldian izandako aurrekontuen likidazioaren berri eman du eta alderdi azpimarragarrienak nabarmendu ditu, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zuzenetik helarazitako dokumentazioarekin bat etorritik.

Gai honetan parte-hartzaileek ez dutenez beste ezer esan, onartutzat eman da.

### **3. SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK SORTU, ALDATU ETA EZABATZEA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Kontseiluburu jaunak erreferentziazko proposamenaren berri eman du, Artezkaritza Kontseiluko kideei aldez aurretik helarazitako dokumentazioarekin bat etorriz. Ondoren Autonomiadun Erakundeko zuzendariari eman dio hitza zehaztasunak eman ditzan.

Bestelako parte hartzerik izan ez denez, Artezkaritza Kontseiluko buruak akordioaren inguruko bozketari ekin dio:

Kontseiluburu jaunak eta Eusko Alderdi Jeltzalearen Udal Taldeko ordezkariak eta Euskal Sozialistak Udal Taldeak aldeko botoa eman dute (lau boto) eta Sí Se Puede Santurtzi eta EH Bildu Udal Taldeek, berriz, abstentzioa agertu dute (bi boto). Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Erakundearen datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu eta ezabatea onartzea.

### **4. AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN INFORMAZIOA.**

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundearen jarduerarekin zerikusia duten zenbait gairen gaineko informazioa eman du.

### **5. GALDE-ESKEAK**

Ez da egon.

Saio honen grabazioa hurrengo esteka honetan dago:

<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/4duMDa47UACJLTw>

Jorrazeko gai gehiagorik egon ez denez, Batzordeburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean hamaikak eta hamabost minutu direnean. Eta nik, organo honen Idazkari Eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE

**ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN PRESIDENTEA**

